



**2024KO ABENDUAREN 19KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko abenduaren hemeretzian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Carolina Aguirre Mastrangelo zinegotziak ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Bilkurari hasiera eman aurretik, Alkateak esan du deialdiari beste puntu bat gehitzea proposatzen duela. "IZFE S.A. – Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmenaren luzapena" hain zuzen ere. Udalbatzak gai hau jorratzea erabaki du.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak dio, nahiz eta deialdian lau akta onartzea proposatzen den, hiru aurkeztu ahal izan direla eta 2024ko azaroaren 28koa hurrengo plenoan onartzeko geldituko dela.

Ormazabal zinegotzaik (EH Bildu) dio aktak irakurtzeko denborarik apenas izan dutela eta horren aurrean hurrengo Osokoan onartzea eskatzen dute presazko ezer ez badago.

Hau honela, aktak hurrengo Osokoan onartzeko uztea erabaki da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

**III.- KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKO 4 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN
ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA.-**



Alkateak, Ebazpen bidez onartutako kreditu transferentzia bidezko 4. kreditu aldatetaren berri eman du.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

IV.- LAZKAOKO OSASUN ZENTROARI BURUZKO PLAN BEREZIA BEHIN-BETIKO ONARTZEA.-

Udal honek formulatuta, eta 024-06-11n emandako Alkatetza Dekretuaren bidez, LAZKAOKO OSASUN ZENTROARI DAGOKION HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI hasierako onespena ematea xedatu zen.

Planeamendu xehekatuko dokumentuaren xede den osasun-instalazioa, indarrean dauden Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako 9 "ERDIGUNE" Hirigintzarako Esku-hartze Eremuan kokatzen da.

Aipatutako Planaren memorian jasotzen den bezala, azken urteetan Lazkaoko biztanleriaren hazkundera, baita Osasun Zentroak zerbitzua ematen dien gainerako udalerrri mugakideena ere, eta herritarrek eskatzen dituzten osasun-zerbitzu berriak ezartzearen ondorioz, osasun-instalazioetako egungo instalazioak ez dira nahikoak izaten ari diren premietarako.

Sortutako egoera konpontzeko, instalazio berriak antolatu behar dira, egungo Osasun Zentroaren iparraldeko mugan dauden lursail mugakide batzuetara zabaltzeko. Lursail horiek kanpoko lursail batzuk dira, eta indarrean dagoen udal-plangintzak urbanizaezintzat jotzen dituen lurzoruetan daude. Beraz, Lazkaoko egiturazko plangintzari buruz indarrean dagoen dokumentua aldatu behar da.

Kontutan edukita horren ondorioz, denboran atzeratuko dela Osasun-Zentro berri bat izateko aukera, zentzuzko epe ertainean sortzen ari diren premiei erantzuteko, konponbide bat artikulatu da eta, lehen fasean, osasun-hornidurak gaur egun hartzen duen lurzoruan (ekipamendu komunitarioaren kalifikazioa duen hiri-lurzorua) eraikin berri bat antolatzen da, plangintza orokorra aldatu ondoren, bigarren faseari ekiteko beharrezko esparru juridikoa eman dadin.

Adierazitako ordenan, Plan Berezi honen bidez, eta lehendik dagoen lursailaren gainean, soto-profila eta sestra gaineko hiru solairu altu dituen eraikin bat antolatzen da, 348,00 m²-ko oinplanoko okupazioarekin eta 1.050,00 m²/(t)-ko sabai eraikigarriarekin. Ondoren, eta aipatutako Arau Subsidiarioen aldaketa onartu ondoren, handitzeari ekingo zaio.

Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren hasierako onespenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2024-06-21 120 zenbakian), BERRIA egunkarian (2024-06-18 datan) eta EL DIARIO VASCO egunkarian (2024-06-20 datan) argitaratu zen, eta horretarako ezarritako epean ez zen alegaziorik aurkeztu.



Bestalde, eta indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren kopiak bidali zaizkie eragindako administrazio sektoriale, emaitza honekin:

- Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak aldeko txostena eman zuen 2026-06-27an.
- UR AGENTZIAko Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzak aldeko txostena eman zuen 2024-07-22an.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa. A.A.k ere aldeko txostena eman du, administrazio-espedientean agertzen den moduan.

Azkenik, eta Eusko Jaurlaritzako Kalitate eta Ekonomia Zirkularreko Zuzendariak 2024-11-19an emandako Ebazpenaren bidez, Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa formulatzea xedatu zen. Txosten horretan, honako hau zehazten zen: Ebazpenean zerrendatutako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, ez da aurreikusten plangintza xehatuaren dokumentuak ingurumenean eraginik izango duenik eta, beraz, garapen-plangintzari buruzko dokumentuak ez du ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren izapidea bete behar. Ebazpen horretan, ingurumen-integrazioarekin lotuta hartu behar diren neurriak aipatzen direnean, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren berariaz sartu behar direnak zaharberritze-proiektuari buruzko zehaztapen bat dago.

Adierazitako zehaztapenak betetze aldera, Plan Bereziaren erredakzio-taldeak agiri bateratu bat prestatu du, 2024ko abenduko datarekin. Bertan, aipatutako jarraibideak jasotzen dira, eta Udalbatzak berresteko aurkezten da.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio baiezkotzeko botoa emango dutela baina hiru ohar egin nahi dituztela:

- 1) Euskarazko prentsan ez dela iragarkia argitaratu, nahiz eta beste batzutean egin izan den.
- 2) Sustraitz erreka azalera kontua inoiz hirigintza batzordean aipatu izan dela gai honekin batera, ez al duela eragotziko proiektuak. Batzordean erantzun omen zen proiektu hori ez zela aldi berean lantzea aurreikusten, obre honekin batera, baina euren ez luketela nahi behintzat hori oztopatzerik lan honek. Arazo tekniko haundirik ez dagoen tokian azalera kontua gustatuko litzaiekela eta ohar hau kontuan hartzea ere gustatuko litzaiekela.
- 3) Ondo ikusten dutela Osakidetza eta osasun zentroaren lanak eta obrak egitea, baina hori baino premiazkoago ikusten dutela zerbitzua emango duten pertsonen behar bezala hornitzea zerbitzua. Badakitela hori egitea ez dagokiola Udalari, baina erreklamazioa bai eta hori egitea gustatuko litzaiekela.

Horiek horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aho batez, hau da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen


LAZKAOKO
UDALA

47.2.II) artikulua zehazten duen gehiengo osoaren quoruma lortuta, Udalbatzak honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- LAZKAOKO OSASUN ZENTROARI DAGOKION HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA behin betiko onartzea.

BIGARRENA.- Onartutako agiriaren kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Plangintza Erregistrora bidaltzea.

HIRUGARRENA.- Hartutako erabakiaren erabaki osoa eta dokumentua garatzeko hiri-gintza-arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Adierazitako aginduan, eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, iragarki horretan ingurumen-txosten estrategikoa 2024-12-11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (240 zk.) eta euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405660e.shtml helbide elektronikoan argitaratu dela adieraziko da.

LAUGARRENA.- Erabaki hau OSAKIDETZARI jakinaraztea.

BOSGARRENA.- Hartutako erabakiari dagozkion gainerako zehaztapenak betetzea.

V.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN 5. ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) abstenitu egin da eta aretotik irten da.

Osoko Bilkurak, 2024-11-28an egindako bilkuran, Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen egitasmoa, aldaketak sartuta, bosgarren aldiz idazteko baimena ematea erabaki zuen; obrak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari esleitu zitzaizkion 4.035.273,63 eurotan, gehi BEZ.

Proposatutako aldaketak, kontratua arautzen duen administrazio-klausula partikularren agirian jasota ez daudenak, kontratua lizitatu zen unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortutako inguruabarren ondorio dira. Zehazki, obra-zuzendaritzako zerbitzuaren arduraduna den Jovino Martinez Sierrak egindako txostenaren bidez egindako eskaririk datoz.

2024ko abenduaren 12an, kontratistari entzunaldia egiteko epea eman zitzaion.

Legearen arabera emandako epean, kontratistak ez du alegaziorik aurkeztu.

Espedientean gordeta dauden txosten teknikoekin bat etorriz, obra-kontratua aldatzeko nahitaezko betekizunak betetzen dira, hau da, SPKLko 203., 205. eta 242.4. artikuluetan ezarritakoak.

Era berean, Udal Idazkariak igorritako aldeko txostena ere badago.



Obra zuzendaritzak egindako aldatutako bosgarren proiektu honetan, kontratu aldaketa honen zenbateko likidua 69.589,48 eurokoa gehi BEZ dela adierazten du.

Lehen aldaketa 366.694,50 eurokoa gehi BEZ izan zen; bigarren aldaketa 221.378,83 eurokoa gehi BEZ izan zen; hirugarren aldaketak ez zuen obraren zenbatekoa aldatzea suposatu, eta laugarren aldaketa 491.814,77 eurokoa gehi BEZ izan zen. Aldaketa guztien batura 1.149.477,58 eurokoa gehi BEZ dela kontuan hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren (BEZ kontuan hartu gabe) %20 gainditzen da. Beraz, kontratatarentzat ez da bete beharrekua eta bere berariazko onarpena behar da. Onarpen hori eman du Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoaren bitartez 2024ko abenduaren 13an.

Proposatutako bosgarren aldaketaren ondorioz, kontratuaren hasierako prezioa horrela aldatzen da: %1,72. Beraz, behin betiko bermea zenbateko horri doitu behar zaio, aldatutako prezioarekin dagokion proportzioa izan dezan. Hona hemen berme gehigarriaren zenbatekoa: 3.479,47 euro (SPKL, 109.3. artikulua).

Aldaketarako espedientea onesteko eskumena kontratazio-organoak du, hots, Osoko Bilkurak, SPKLko bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarri denari jarraituta.

Aurrekoa kontuan hartuta, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botorekin (EAJ-PNV), 5 abstentzioarekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honakoa erabakiak hartu ditu:

LEHENA. Lazkaoko Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obraren bosgarren proiektu aldatua onartzea, udaleko zerbitzu teknikoek berrikusia, 69.589,48 euro gehi BEZ-ekoa.

BIGARRENA. Honako kontratu hau bosgarren aldiz aldatzeko espedientea onestea: "Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak" burutzeko obrak egiteko dena, Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari adjudikatutakoa hasierako prezioa 4.035.273,63 euro gehi BEZa direlarik.

Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko proiektuaren bosgarren aldatutako egitasmoari jarraituta egingo da; igerilekuko espazioaren goiko forjatuko habeak eta habexkak konpondu eta forjatua babestean datza, eta kontratuaren bosgarren aldaketa 69.589,48 eurokoa gehi BEZ izango da.

HIRUGARRENA. Aldaketa honek obraren epea 15 egun luzatzea dakar. Beraz, obra burutzeko epea 2025eko maiatzaren 6an amaituko da.

LAUGARRENA. 69.589,48 euro gehi BEZeko gastua xedatzea, indarreko udal-aurrekontuaren dagokien partidetan zorduntzeko.

BOSGARRENA. Ebazpen hau kontratatari jakinaraztea, eta aditzera ematea, batetik, hamabost egun baliadun duela, hauxe jaso eta biharamunetik hasita, behin betiko bermea 3.479,47 euroarekin gehitzeko eta kontratuaren aldaketa gauzatzeko, eta, bestetik, zein errekurso jar dezakeen.



LAZKAOKO
UDALA

SEIGARRENA. Aldaketa argitaratzea kontratatzailearen profilean, SPKLko 207. eta 63. artikuluetan agindu denari jarraituta.

VI.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 30. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztatzea egin dute.

Hogeita hamargarren obra egiaztatzea HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA ETA HIRUROGEITA HAMASEI EURO ETA LAUROGEITA HIRU ZENTIMOKoa ===== (333.076,83 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman dio ziurtagiri honi.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 5 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hau onartu du.

VII.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-REN ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN LUZAPENA.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) pleno aretora bueltatu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Lazkaoko Udalaren artean sinaturik dagoen Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmena bederatzi hilabetez luzatzeko proposamena heldu da Gizarte Zerbitzu, Berdintasun eta Adineko Pertsonen Batzordetik.

Hitzarmen hau 2021eko urriaren 1etik 2023ko abenduaren 31 arteko epealdirako sinatu zen, eta ondoren hau 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31 arte luzatzea erabaki zen.

Orain hitzarmen hau 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko irailaren 30 arte luzatzea proposatzen da.

Hau horrela izanik, aho batez, Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Lazkaoko Udalaren artean Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmena bederatzi hilabetez luzatzea erabaki du, 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko irailaren 30 arte.



VIII.- IZFE S.A. - INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN LUZAPENA.-

IZFE S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Lazkaoko Udalaren artean sinaturik dagoen zerbitzu informatikoak emateko hitzarmena lau urtez luzatzeko proposamena heldu da Idazkaritzatik.

Hitzarmen hau 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31 arteko epealdirako sinatu zen. Orain hitzarmen hau beste lau urtez luzatzea proposatzen da.

Hau horrela izanik, aho batez, Osoko Bilkurak IZFE S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Lazkaoko Udalaren artean zerbitzu informatikoak emateko hitzarmena lau urtez luzatzea erabaki du.

IX. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko seiak eta berrogeita hamar direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

